



## IRABAZI ITURRIAK

Honakoak dira prezio motak:

1. **Prezio finkoak:** aldagai estatikoen arabera aurredefinituta daudenak.
2. **Prezio dinamikoak:** merkatuaren egoeraren arabera aldatzen direnak.

Prezio finkoen barruan, berriz, honako hauek daude:

1. **Zerrendako prezioa:** produktu edo zerbitzu indibidualei jartzen zaien prezio finkoari esaten zaio.
2. **Ezaugarrien araberako prezioa:** produktuaren kopuruaren edo kalitatearen araberako prezioa.
3. **Merkatu-segmentuaren eta bere ezaugarri berezien araberako prezioa:** bezero jakin baten profilaren arabera ezartzen den prezioa da.
4. **Bolumenaren araberako prezioa:** prezioa aldatu egiten da, erositako kopuruaren arabera. Gero eta gehiago erosi, produktua edo zerbitzua orduan eta merkeago ateratzen da.

Bestalde, prezio dinamikoen artean honakoak daude:

1. **Negoiazioa edo tratua:** prezioa bi parte edo gehiagoren artean adostu egiten da, eta negoziatzaileen botere edo trebeziaren menpe dago.
2. **Marjinaren kudeaketa:** inbentarioaren eta erosketa egiteko denboraren araberakoa izango da prezioa.
3. **Denbora errealeko merkatua:** eskaintza eta eskaeraren legearen arabera finkatzen da prezioa.
4. **Enkanteak:** elkarren artean lehiatzen diren eskaintzen emaitza izaten da prezioa.

Gure proiektua sortzeko oso garrantzitsua da gure kostuak definitzea eta ahal bada hauek minimizatzea. Horretarako jakin behar ditugu gure kostuak finkoak edo aldakorrak diren lehenengo.

- **Kostu finkoak**
  - Webgunearen hosting-a
- **Kostu aldakorrak**
  - Grabaketa egiteko beharrezko materialaren alokairua
    - Produzioaren arabera material tekniko desberdina erabiliko dugu
  - Lokalizazioen alokairua
    - Baliteke produkzio baterako lokalizazio bat alokatu behar izatea
  - Mobilizazioa
    - Materialen eta langileen garraioa